

Zerubiden

Iraganean gertatzen da dena, irakurri nuen nonbaiten, eta baietz egin nuen buruaz, halaxe da, ez dago orainik, joan da, iraganean gertatzen da dena. Txillardegirik nekusan argazkian, zeinek ekarriko zuen hona, zer pentsatu ote zuen hainbeste urteren ostean bere lehen nobela idatzi zuen lekua berriz ikusita, zerekin akordatu ote zen, hala xe da, iraganean gertatzen da dena, bakarrik nago Patagonian, bazkalordua da, eguraldi muzina dago benetan, taberna honetara etortzen naiz aspaldian, txineraz aritzen dira zerbitzariak euren artean, euskaraz egiten du



Jira
Xabier Gantzarain

nire bihotzak taupa. Gaur igandea da, iragana, egunkari ezkutu baterako ari naiz idazten, mundu guztiaren aurrean.

Mezua jaso dut sakelakoan: Epelde hil da. Zergatik irakurri behar nuen gaur esaldi hori, dorre okerra osatzen dute terrazako aukiek espaloi ertzean, autoak ziztuaz doaz, iraganean gertatzen da dena. Gerrara eraman zuten frankistek, Bruneten ibili zen, baimenarekin etxera

etorritako batean anaiari eman zion agindua, botatzeko ur irakina hanka gainera; lehenengoa kale; artilezko galtzerdiak jantzita hurrena, hala ere erre ez. Berriz ere gerrara. Iraganean gertatzen da dena.

Bakarrik nago Patagonian, ez dago urmaelik parkean.

Iribarne

Ezin dut burutik kendu aitita Balentin eta Patxi ze pozik egongo lirakekeen bizirik baleude. Ze poz hartuko luketen ikurrina legeztatu aurretik euskaldunak bere gorpuaren gainetik pasatuko ginela esan zuen gizona hil dela jakitean. Francoren diktadura garaian Turismo eta Informazio ministro izandako hil da, eta pena ematen dit, hainbeste zapaldu zuen belaunaldiko askok eta askok egun hau ikusteko aukurrik ez izateak. Amorruez ikusi zuten, ostera, nola Manuel Fraga Iribarne demokrata bihurtu zen, eta nola Gali-ziako Xuntako presidente izendatu zuten. Telebista-



Bira
Onintza Enbeita

ren aurrean negar egin zutenak ezagutzen ditut. Espainian ez dago desberdintasunik diktaduratik demokraziara. Egia da demokrazian hauteskundeak egon direla, baina hautetsiak izan diren asko diktadura garaian ministro izandakoak edo haien ondorengoak dira. Hala ere, haize berria badator, eta, zorionez, atmosfera kutsatu zaharra joaten ari da.

Agur, Manuel Fraga Iribarne; ohorerik bat ere ez. Pentsatu dut ez zitzaiola gustatuko artikulua izenburua bere bigarren abizena izatea, lotsatu egiten baitzen euskalduna zelako. Baina izorratu egin nahi nuke. Jurrამენდინ edo martxoaren hiru batez Gasteizen hildakoak justizia eske ari dira hilobietatik, eta hiltzaileak ez du bakean atsedean hartzerik merezi.

Nori berea delako zuzenbidea

Koldo Zuazo Irakaslea

Badira herri baten historian ezinbestekoak diren lagunak eta, Euskal Herrian, XX. mendearen bigarren erdialdean, ezinbestekoa izan da Txillardegirik. Gerraosteko urte beltzak bizitzeko egokitu zitzaion, euskara eta euskal sena itzalita zeudenean Donostian, eta herri sen hori atzera berriz osatzen eta ondorengoei pasatzen ahalegindu zen Txillardegirik.

Hari eta haren ingurukoei zor diegu euskara ezartzea herrigintzaren oinarrian. Ordu arteko egitasmoan arraza zen ardatza, eta hizkuntza baztertuta eta alde batera utzita zegoen. Etena, beraz, garbia zen, eta etena, gainera, ez zen hitz hutsezkoa izan: Txillardegirik berak, esate bate-

rako, gurasoek erakutsi ez zioten euskara ikasi eta hizkuntza horretan egin zuen bere ondorengo ibilia.

Hizkuntza herrigintzaren oinarrian jartzeak, bestalde, euskara batua egitea eskatzen zuen. Zazpi herrialdeen arteko hartu-eman euskaraz izango bazen, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak ez ziren nahikoa. Ezinbestekoa zen euskara zabalago eta orokorrago bat. Ezinbestekoa euskara nazionala. Sarri esan da Euskaltzaindiak egin zuela euskara batua, 1968an, baina euskara batuaren lehenengo urratsak Baionan egin ziren, 1964an, eta Txillardegirik izan zen, hain zuzen, urrats haiek abiarazi zituen.

Euskara batuaren ezaugarrien gainean ere eztabaida biziak sortu ziren. Batzuek Lapurdiko antzinako euskararen oinarritu nahi zuten. Beste batzuek, berriz, euskalki guztiak na-

hasita eraiki nahi zuten. Txillardegirik, aldiz, Euskal Herriko erdiguneko hizkeretan oinarritzearen aldekoa zen. Hortxe ikusten zuen euskararen indarra eta hizkera horixe iruditzen zitzaion euskaldun guztiendako ulerterrazena. Ahal zela, gainera, euskara bizian oinarritzearen aldekoa zen, antzinako idaleei lotuegi egon ordez. Hauxe idatzi zuen 1959an, euskara batua egin gabe zegoela:

Oiartzun, Sara eta Elizondoko euskera artzen dut eredutzat. (...) Duvoisin eta Mendibururen artean mugituko naiz, nik uste. Axular aukeratu nuke gogoz, bere euskera bezelakorik ezpaitago inundi ere, baña, zaharregia dala-ta, Duvoisin artu dut bere ordez, eta Mendiburu oiartzuarra.

Euskara batua egin eta gero, hura zabaldu beharra egin zen eta, arlo

horretan, 70eko hamarkadan oinarritzeak gertatu ziren liburuak plazaratu ziren. Argiak eta irakurtzeko errazak ziren: Sustrai bila, Euskara batua zertan den, Euskal gramatika...

Esan dezadan, honen harira, Txillardegirik dagokionez, euskara batuaren alde egiteak ez zuela ekarri euskalkiak gaitzestea eta alde batera uztea. Euskalkien gaineko hainbat lan argitaratu zituen eta, lagunartean zegoenean, Gipuzkoako euskalkian hitz egiten zuen. Haren hizketa entzunda, gainera, ezin zen esan euskara ikasitakoa zenik. Erabateko euskalduna zen.

Eta heriotzaren ordua heldu zaion honetan, bada nabarmendu nahi dutan gertakari bat: bizi osoa eman duela Euskal Herriaren aldeko ahaleginean eta haren jarduna garbia eta gardena izan dela. Ez da sekula isildu eta kikildu, ez da sekula lausengu eta zurikerietan aritu. Nonbait ere horregatik itxi zizkioten Euskaltzaindian sartzeko ateak eta nonbait ere horregatik baztertu dute beste zenbait erakundetan. Nik, ostera, euskaldun xume naizen aldetik, neure begirunea eta neure zorra aitortu nahi diot, eta haren senide eta lagunei, berriz, neure elkartasuna.

Txillardegiren heriotzean

Txillardegirik, eskerririk asko

Lehendik ere ezagutzen nuen Txillardegirik, baina, bereziki, Iruñeko Udako Euskal Unibertsitateko eskoletan ezagutu nuen Jose Luis Alvarez Enparantza.

Txillardegirik gauza asko esker-tzen dizkiot, baina, besteak beste, eta oso modu berezian, bere hurbiltasuna, apaltasuna eta xumetasuna. Baita bere argitasuna, zuzentasuna eta koherentzia ere. Eta, nola ez?, bere jakituria, zorrotasuna eta nekezineko saiatzeko hura; beti galtzailen artean.

Oso ekarpen handia egin die euskal literaturari, euskarari, euskal soziolinguistikari, abertzale-

tasunari, baketzeari, independentismoari, eta abarri eta abarri. Badakit oso motz gelditu naizela hemen Txillardegiren merituak aipatzen, baina, era berean ere, jakin badakit ezinezkoa dela lerro gutxitan bere merezimendu guztiak goraiatzeko.

Atsedean sakona har beza Txillardegirik hemendik aurrera bere txakurrarekin, naturarekin eta Chopinen musikarekin, batez ere, bere nokturnoekin.

Txillardegirik arrasto handia utzi du Euskal Herrian. Euskal gizarteak asko zor dio J. L. Alvarez Enparantzari.

Doluminak senitartekoei.
Xanti Begiristain Madotz.
Iruñea

Txillardegirik: Euskal Herria helburu

Jose Luis Alvarez Enparantza euskararen bidezidorretatik iritsi zen abertzaletasunera, berak aitortuta. Mugimendu politikoen egoeraren azterketan eta elkartasun-ildoak finkatzeko unean, hizkuntza eta kultura jotzen zuten erreferentzia nagusitza. Elkartasuna agertzen zuen beti bere hizkuntza eta kultura berreskuratzen saiatzen ziren mugimenduekiko. Aldiz, kezka handiz begiratzen zituen berezko hizkuntzari eta hizkuntza horri lotutako kulturari muzin egiten zioten askapen mugimenduak. Irlandako egoera, adibidez, kezka ikusten

zuen; are gehiago, kezka-iturri zen berarentzat Euskal Herria bolada batean gertatzen ari zen Irlandarekiko mimetismoa, nolabait oraindik bizirik dagoena. Berak ez zuen uste hizkuntzaren berreskuratze-prozesuan etenik egin behar zuenik. Irlandako prozesuak argi utzi du hizkuntza eta kultura berpizteko asmoa independentziaren egunerako uztea oker historikoa dela. Bere helburua ez zen erdal herria, bere helburua Euskal Herria zen, *Euskal Herria helburu* liburuan ongi idatzita utzi zuen bezala.

Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegirik*. Agur eta Ohore.
Jose Inazio Lopez de Luzuriaga.
Donostia

Zuzendaria:
Martxelo Otamendi
Zuzendariordea:
Iñaki Petxarroman
Edizio arduraduna:
Andoni Alvarez
Argitaratzailea:
Euskal Editorea SM
Publizitatea: Bidera
publizitatea
Lege gordailua:
SS-0662/03
Batzorde parekidea:
0712184059

Egoitza nagusia:
Martin Ugalde kultur parkea.
Gudarien Etorbidea, z/g.
20140 Andoain.
Telefonoa:
(0034) 943-30 40 30
Faxa: (0034) 943-30 09 43
Webgunea:
www.berria.info
Posta elektronikoa:
berria@berria.info
Publizitatea:
publi@bidera.eu
Harpidetza saila:
(0034) 943-30 43 45

Date: 17/01/2012
Exemplaire: 2.659
Editore: Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication:
Martxelo Otamendi
Comission paritaire:
0712184059
Delegation Labourd:
Lisses 3, 64100-Baiona.
Tel.: (0033) 559256220.
Fax: (0033) 559254303.
E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK
Araba: Bizenta Mogel, 6.
Posta kodea: 01008
Gasteiz. Telefonoa:
945-15 04 52. Erredakzioko
faxa: 945-14 83 07.
Posta elektronikoa:
araba@berria.info.
Bizkaia: Uribitarte kalea, 18,
3. C. Posta kodea: 48001
Bilbo. Telefonoa:
94-435 26 00. Erredakzioko
faxa: 94-423 49 75.
Posta elektronikoa:
bizkaia@berria.info.
Lapurd: Lisses, 3. Posta
kodea: 64100 Baiona.
Telefonoa: 559-25 62 20.
Faxa: 559-25 43 03.
Posta elektronikoa:
lapurdi@berria.info.
Nafarroa: Iratxeko Monaste-
ria, 45, 13. Posta kodea:
31011 Iruñea. Telefonoa:
948-36 66 22.
Publizitatea: 948-36 66 23.
Posta elektronikoa:
nafarroa@berria.info.